

XALUPA

" Xalupa txiki
xalupa maite
kaitxoan sar zaite "

Zatoz arin, zatoz bizkor; bestela arrain han diren batek jango zaitu.

- Ez nau jango.

Baina bai, arrazoi duzue. Aspaldian ez dizuet ikustaldirik egin, baina ez pentsa... ez pentsa gero zuekin ahaztu naizenik, e?

Zuek oporrak izaten dituzuela..., baita nik ere. Nik urtean behin izaten ditut oporrak, negu aldean. Orduan ez naute lanera behartzen; arrantzaleak etxean egon ohi dira eta ni ere, beste xalupekin jolastuaz nere kaiean egoten naiz.

Baina itsasoak, itsaso zabalak, egunoro opadit berriren bat zuei kontatzeko. Negu honetan, arrainik ez badut harrapatu ere, bildu ditut bai zuei kontatzeko zenbait ipuin, historio, txiste... Ez naiz opor hauetan oso urrutira joan baina egunoro egin dut pasira bat itsasoan.

Batez ere, oraingo hontan, arrainen lagun handi egin naiz. Bai, bai; hemengo, Euskalerriko arrainen lagun: sardina edo txitxarro edo berdel edo egaluze edo bixigu edo meruaren lagun; arrain

handi eta ttikien lagun, denen lagun egin naiz. Oso pozik bizi dira gure arrainak urpean; haien salto eta brinkoak ikustekoak dira. Batez ere, orain, uda berrian oso pozik dabilta.

Hauetako bat oso lagun handia egin dut. Tti^a pia da oraindik baina oso bizkorra eta argia. Txeru da bere izena. Bere amaren atzetik ibiltzen da gehienetan, baina batzutan ikes egiten dio eta urru tira joaten da. Atzo amak errietan egin zion:

- "Txeru, Txeru, ez gero gehiago horrelakorik egin! Itsasoa ez duzu oraindik ongi ezagutzen gaztea zarelako. Zu oraindik ttiki zara eta bakakizu... arrain handiak jaten du ttikia".

Baina Txeru ttikia, nahiz batzutan okerra izan hor dabil harat eta honat, batera eta bestera, itsa soko bidetan beti pozik.

Zuetaz ere, ikastolako haurretaz, hitzegin diot eta badaduka zuek ezagutzeko eta ikusteko gogorik aski. Horregatik, aurtengo udan hondartzara joaten zaretenean eta uretan sartu, han edukiko du zue zuen zain. Ea, nortzuk topatzen duzuen!

Baina kontu izan uretara sartzean eta urpean ere bai, begiak zabalik eta argi ibili beharko dituzuela.

Agur eta laister arte.

XALUPA

T X A L U P A

Aita eta semea joan ziren arrantzara.

Eta bota zuten sarea eta arrain asko harrapatu zuten. Eta etxeruntz zetozen. Bazkaria ipintzen zegoen ama. Eta sema eta aita etorri ziren etxera. Bazkaltzen hasi ziren denak poz-pezik. Bazkaldu eta gero arrantzara joan ziren biok berriro. Eta arrainik ez zuten harrapatu (ezer ez). Eta berriro ere bota zuten sarea eta ezer ez.

Joan ziren etxera triste-triste eta amak: "zer pasatu da?"


- "Ez dugula ezer ere harrapatu".

Eta esan zuen amak:

- "Benga, afaltzera denok!"

Afaldu zuten eta ohera sartu ziren hirurak.


Idoia Txurruka



AUBIXA

Ni Aubixara noa oporretan amdereñoarekin egunak pasatzera. Aubixatik etorritakoan Debara noa eta Debatik etorritakoan ikastolara noa. Eta ikastolan asko ikasten dut. Eta gero etxera noa bazkaltzera eta bazkaldutakoan berriro ere ikastolara eta ikastolatik irten eta gero etxera. Gero lo egin eta elizara noa Jesusekin hitzegitera. Gero elizatik irtetean berriro jan eta Debara joango naiz. Eta gero kalean ibili behar dugu.

Arantza Kortabitarte




OPORRAK

Egun batez oporrak etorri ziren eta umeak oso pozik zeuden. Baina andereñoak gauza inportante bat esan zien haurrei; lan egiteko eta asko ikasteko.

Eta tarea batzuk eman zizkien haurrei. Eta tareak egindakoan hondartzara joan ziren.

Eta andereñoa hondartzan zegoen eta haurrek tareak eraman zituzten hondartzara. Orduan andereñoari erakutsi zizkioten eta "ondo" esan zien andereñoak.

Aitor Lodosa



Laister oporrak datoz. Eta ni Debara noa. Beste urtean ere joan ginen Debara. Eta gaur azkenengo Xalupa da. Eta horretara gaur ipuinak egin ditugu.

Irene Castellano P.

Bigarren maila

ENARAK ETA IKASTOLAKO HAURRAK

Behin batez ikastolako haur batzuk enarak ikusi zituzten leihotik. Haurrak txilioka hasi ziren: Zer xori mota dira horiek?

- "Enarak dira", esan zien andereñoak. Horiek udazkenean joaten dira Afrikara eta udaberri an etortzen dira.

- Andereño, horiek, orduan, zenbat kabi egin behar dute, e?"

- "Ez, umetxoak, horiek beti kabi batetan daude; ez zaie behin ere ahazten beren kabia non duten. Horien kaka begira joaten bazaizue itxuak geldituko zarete. Kontuz enaren kakarekin".

- "Bai, andereño", esan zuten denak eta errekreora irten ziren.

Gero, errekreotikan etorritakoan, zorro guztiak lurrean ikusi zituzten eta andereñoaren aulkia enaren kakarekin. Eta ume natzuk esan zioten andereñoari: "Lur guztia kakaz beteta dago". Andereñoak etxera bialdu zituen umeak eta esan zien: "Arratsaldean ez duzue ikastolarik eta amak galdetzen baldin badizue zergatik, enarek ikastola kakaz beteta laga dutelako".

- "Bai, andereño".

Idoia Gurrutxaga

IKASTOLA ETA HAURRAK

Behin batez ikastola batetan andereño batek hogeita hemezortzi ume zituen. Lau ume gaiztoak ziren eta beste guztiak zintzoak.


Egun batetan, lau gaiztoek plana egin zuten gauerako eta biharamunerako.


Gauean irten ziren eta denak juntatu ziren. Gero ikastolara joan ziren eta ume bakoi-tzari gauza bat lapurtu zioten.

Hurrengo egunean joan zirenean andereñoak esan zuen: "Atera arkatza eta bloka".

Eta ume bat hasten da: "Nik ez dut. Lapurrak etorri dira". Gero beste bat, gero beste bat eta azkenez denak.

M^a Victoria Zabala





PAILASOA

¡ATENCIÓN
EMEN NABO

Behin batetan pailaso bat bizi zen. Ez zekien pailasokeriarik egiten. Egun batez pailasoa ikastolara joan zen eta tontakeriak egiten ikasi zutenean zirkora joan zen eta

pailasokeria asko egin zituen. Premio bat irabazi zuen. Kopa. Hortik aurrera zirkora joaten zen eta pozik bizi izan zen.

Antxon Iriondo

EGUZKIA ETA ILARGIA

Eguzkia sua da. Eta eguna hasten denean ateratzen da. Egun batetan Eguzkiak esan zion:
- Zu! Ken zaitetz nere aurretik. Eta Ilargiak esan zion:

- Zergatik?

- Bestela argirik ematen ez dudalako eta orain eguna da.

- Ba, aguantatu zaitetz, nik badut deretxoa zure aurrean egoteko.


Eta Eguzkia mendi artean ezkutatu zen. Eta eguna zenean Eguzkia berriz irten zen, argitasun gehiagorekin.

Eta Ilargiak begiak ixten zituen Eguzkiaren argitasunagatik. Eta Eguzkiak esan zion:

- Orain aguanta zaitetz zu. Eta gehiago golestatzen banauzu, beste zedozer egingo dizut.

Eta Ilargiak gehiago ez zuen Eguzkia moles-tatu, eta beti Ilargia Eguzkiarekin ibiltzen zen.

Arantza Beitia




X O R I A K

Xoriak oso politak dira. Eta mota askotakoak daude. Adibidez: enarak eta txantxangorriak. Enarek buztinez egiten dituzte habiak; txantxangorriak belarrez, goroldioz eta oilo lumez.

Xoriak hemen hotza egiten zuenean leku beroagoetara joan ziren eta orain berriro datoz berroa hasten delako. Mendira joaterakoan, berriro, entzuten ditugu xorien kantak.

Ehiztariak xoriak jateko hil egiten dituzte. Neri oso gaizki iruditzen zait. Xoriek ere beren bizitza dute eta nik ez dut egiten hori.

Beste batzuek kaiolatan sartzen dituzte. Hori ez dago oso gaizki baina gaizki dago. Gu kartzelan sartzea bezala litzateke hori eta ez zaigu gustatzen. Xoriei ere ez zaie gustatzen.



GURPILA

Gizonek, ezin zutelako, gauza guztiak ezin zituzten eramán; gauza biribilen gainean eramaten zituzten. Gero gurditan eramaten zituzten. Gurdiak animaliek eramaten zituzten eta honela eramaten zituzten gauzak. Geroago automobiletan.



Orain gurpildunen lista bat egingo dut: automobila, bizikleta, autobusa, trolebusa, motorra, kamioia, egazkina, etabar...

Geroago ezta kigu zerekin eramango dituzten gauzak. Gero "futurua" izango da eta gauza desberdinak egongo dira.

Jon Esnaola

Hirugarren maila

EUSKALERRIA

Ametsetan nagola esango nuke.

Harrigarritzko Herrka ematen du nire Euskal Herri maiteak.

Ikusten ditut leihotik artzainak
mendian xoriak kabitan
umeak abeslari
loreak usaingarri
zuhaitzak ematen digun fruitu hori,
borobila eta gorri-gorria sagarra bezala...

Ñam! ñam! ñam!, jateko bezala dago.

Ai! nire Euskalerra maitea, zu gabe ezin-
go nintzateke bizi. Eztakizu zuk nola maite zaitu
dan, eta horregatik zuk eman zenidan xori zuri eta
ttipi hura konzerbatzen dut nire etxe politean.

Han, urrutian, ikusten dut erreka zuri tti
pi bat. Ura jausten ari zaio, eta ur hori zure mal
koak dira. Etzazu nigarrrik egin!!!

Idoia Arriola

GIZONAK HEGAN EGITEN IKASI ZUEN

Gizonek lehen xoriak ikusiaz plastikazko edo egurrezko heglak egin zituzten.


Lehenengoan eta bigarrenean ezin hegatu egin, baina azkenean hegatu egin zuten.

Gizon batek esan zuen: haizeaz orriak bultzatu eta hegatu eginen duten bezala guk ere egin dezakegu.



Orduan pelota bat bezalako borbil bat haizez beterik egin zuten. Baina gizona non sartuko zen?

Borobil handi hari, sokaz loturik, kexa handi bat ipini zioten txintxilizka eta han jarri zen gizona. Gora joan nahi bazuen, harriz betetako saku batzuk botatzen zituen, horrela pisua galdu eta gorago joaten ziren, eta behera joan nahi bazuen haizea kendu borobiletik.



Geroago, autoak motorrekin ikusiaz, esan zuten: eta zergatik ez dugu motorrarekin hegan egiten? Eta hori egin zuten. Xori bat bezalako gauza handi bat egin zuten eta "egazkinaren" ize-na eman zioten. Egazkinak oso ongi egiten zuen hegan eta orain ere hori erabiltzen da.

UDABERRIARI KANTA


Udaberria atzo xalupan sartu eta Euskal Herriruntz dator. Draindikan egun asko igaroko ditu itsasoan.

Usaintzen da leku guztietan Udaberria.

Lehenko urtean pena handia hartu nuen Udaberria hil zenean.

Arraunean dator gogor, baina hala ere asko tardatuko du.

Mendi guztiak daude Udaberria noiz etorriko den zain. Jendea oso pozik dago.



Udaberria Martxoaren 21 ean helduko da.

Orain ere beroa egiten du, baina ez da Udaberria negua baizik. Eskutitz bat bialdu zuen esanaz: Kaixo lagunok! Gaur xalupan sartu eta ha runtz noa.

A! zer poza hartu nuen hori irakurtzean.

Udaberriak bere maletan lore pilo bat ekar tzen du mendietan ipintzeko. Zelaiek traje berdea ipiniko dute Udaberria pozik egon dadin.

Baina hala ere Udaberria beti dago pozik.

Erroka Irigoien

ANTTON BARBAX MELENUDO

Behin bazen Antton izeneko gizon bat. Ile motza zuen. Potolito zen. Ez zuen bizarrik.

Egun batez, gizon bat ikusi zuen, Bizarra eta ile luzea zituen. Hark eramaten bazuen berak ere eraman behar zuela gogoratu zitzaion.

Gero urte bat pasatu eta bizarra eta mele na luzea zituen. Handik aurrera Antton Barbax Me lenudo deitzen zioten. Gainera 20 kilo gizendu zen. Berak pentsatzen zuen 40 kilo mehetu zela.

Egun batez, esan zion bere arrebak: "zer, oraindik bizarra eta ile gehiago utzi behar ditu zu?" Eta Anttonek erantzun zion: " Bai, zer ba?"
20.-


- Ez, ezer ez. Horrela ezkongairik ez duzula bilatuko bakarrik esateizut.

Anttonek esan zion: " Oraindik ez dut behar ezkongairik"

Gero kalera joan zen. Jende guztiak begiratzen zuen. Hau egia bazen sar dadila kalabazan.

Idoia

Arozena



IKASTOLA MAITE EZ ZUEN GIZONA

(7 eta 8 urteko umeentzat Ikastola Elkarteak antolatutako lehen lehiaketan, 3. saria irabazi zuen idazlan honek)

Behin bazen ikastola maite ez zuen gizon

bat. Jon zuen izena. Gizon horrek ez zuen inom ere lanik egiten. Baina aprobetxatu egiten zuen.

Eta zer egiten zuen? Gauetan ikastolara joan eta haizkora batekin mahainak puzkatu. Eta maisuek eta andareñoek ez zekiten nor izaten zen.

Eta horrela jarraitzen zuten. Baina egun batez ume bat jarri zuten gauean eta etorri zen Jon eta mutilak ikusi eta mutilak pistola bat atera eta:

- pan! pan!

Hil egin zuen.

Alesander Arrieta

PRAILEAREN ETA SORGINAREN ELKAR-HIZKETA

Behin, mendi baten puntan, txabola zahar-zahar bat egin zuten. Praile bat eta sorgin bat bizi ziren han. Praileak bigote luze batzuk zituen eta bizar pisba bat ere bai. Sorginak txapel handi bat zuen eta soineko luze-luze bat ipinita. Biak oso ondo bizi ziren, baina behin burruka bat eduki zuten eta sorginak honela esan zion:

- Zu deabrua baino tontoago zara.

Eta praileak, amorrus beterik, erantzun zion:

- Ezagutzen ahal duzu Getariako deabrua?

- Bai, baite Elgoibarkoa ere.

Orduan praileak esan zuen:

- Ba, zu Getariako deabrua baino zatarrago zara.

Sorginak, parre eginaz, esan zuen:

- Besukristo baino zatarrago zara.

Arratsalde osoa horrela pasatuta gero, honela esan zuen sorginak:

- Bihar trena hartuko dut eta hemendik joan egingo naiz.

Praileak orduan, belauniko ipinita honeka esan zion:

- Ez, ez zaitez joan. Ondo konponduko gara. Elgoibar guztian ez dago zu baino sorgin ho-beagorik.

Eta horrela, hortik aurrera ez ziren gehiago haserretu eta biak poz-pez bizi izan ziren bertirako.

Maria Aldanondo

POSPOLU SALTZAILEA

Bazen behin Mirentxu izeneko haur bat. Oso pobrea zen eta bere amonarekin bizi zen. Behin bere amona gaixotu egin zen eta Mirentxuk ez zekien zer egin. Egun askotan egon zen gaixorik. Egun batetan, bazkaria eraman behar zioenean, ez zituen begiak irikitzen eta Mirentxuk esan zion:

- Amona!, amona! Zer gertatzen zaizu?

Hilda zegoela konturatu zenean negarrez hasi zen ohe gainean.

Handik aurrera Mirentxu bakarrik bizi izan zen eta egunoro bere amonarekin hitzegiten zuen.

Egun batetan Mirentxuk pentsatu zuen:

- Horrela ezin naiz bizi. Ez dut janaririk..., eta pentsatzen jarri zen:

- Ah! Badakit! Lan egin behar dut, bestela gogoz hilko naiz.

Elurra zen baina halata guztiz ere, hanka hutsik, kale bazterreko almagazterera joan zen.

- Zer nahi duzu, neskatxa?, esan zion almazenerako gizonak.

- Ba... nik lan egitea nahiko nuke, erantzun zion Mirentxuk.

- Zuk?

- Bai; esan zion Mirentxuk.

- Zu gazteegi zara.

- Badakit, baina dirua behar dut, esan zuen Mirentxuk.

- Ondo dago. Nahi baduzu pospoluak salduko dituzu.

- Baina orain ez du inork pospolorik erosten!

- Ba, ez dut zuretzako beste lanik.

- Ondo da. Noiz hasiko naiz?

- Zuk nahi duzunean.

- Ondo da. Oraitxe -esan zuen Mirentxuk.

- Har itzazu pospolu kaxa hauk eta denak saldutakoan etor zaitez berriz ere.

Mirentxu kalera irten eta pospoluak saltzen hasi zen, honela esanaz:

- Pospoluak saltzen ditut, pospoluak!

Eta jendea galdetzen zion:

- Behar ahal duzue pospolorik?

- Ez, badut etxean.

Eta horrela bizi zen Mirentxu, beti berdina.

Behin, kalean zebilela pospolu bat ixotzea gogoratu zitzaion eta horrela egin zuen. Ixotu eta segidan pospoluaren argia handitu egin zen eta argiaren erdian bere amona irrifarrezka azaldu zitzaion.

Hain zorion handia hartu zuen Mirentxuk, beregana joatea nahi izan zuen, baina korrika hasi zenean pospolua emendatu egin zen. Mirentxuk beste pospolu bat ixotu zuen baina amona ez zen azaltzen. Eta Mirentxuk honela esan zion:


- Amona!, zurekin egotea nahiko nuke!

Eta hurrengo goizean Mirentxu kale bazterrean hilda aurkitu zuten, eta jendeak honela zioen:

- Hotzez gogortuta dago; seguraski ez du gurazorik izango.

Mirentxu zeruan zegoen bere amonarekin.

Agurtzane Rementeria



Z E R U A

Zerua, zu oso ederra zara
urdin urdina,
baina gutxitan egoten zara
zaren bezain urdina.


Lainoek tapatzen zaituzte.

Ez laga
ez laga lañoei
zure edertasuna tapatzen.

Zatoz nire etxera.

Tapatzen zaituztenean,
nahiz eta barruan egon,
zure edertasuna
urdin urdin
zabal zabal
ikusiko da.

Norea Maiztegi



Gaur Txalupa dator. Eguzki hori horia, bere txalupa gainean
 eserita dator. Udaren uda badator. Eguzkiak txalupak eta loreak
 ekarriko ditu. Nolako polita da nere udaberri - uda. Ni positik
 nago hil hontako txalupa irakurtzeko. Txoriak ere txalupa
 nahi dute irakurtzea. Agur udaberri uda. Berta Castellano

TORTILLA ETA PLATERA

Behin batez etxe batetan andre eta gizon batek beren etxetik tortilla eta platera errekarera bota zituzten. Orduan platera eta tortilla esnatu egin ziren eta ikusi zuten errekan zeudela eta hizketan hasi zen tortilla:

- Platera, errekan gaude eta laister bondar tza batetara joango gara eta itsasoak ez dakigu nora eramango gaituen. Baina orain jetxi naitake zure gainetik, zu bustitzen nago eta.

- Bai, bai, bai. Berdin da. Nere gainean eramango zaitut eta hondartzara ailegatzen garenan han utziko zaitut eta gero biok eguzkia hartuko dugu. Patata, mantekadua eta baño ederra ere hartuko ditugu.

- Baina Platera, asko janda eta gero bañatzea txarra da.

- Hori gizonentzat da, ez guretzat.

Eta ailegatu zirenean eta jan zutenean bañatu ziren eta hil egin ziren. Eta itsasoak eraman zituen.

Nora eraman? Hori ez dakit.

Lorea Muxika

KONPORTA

Konportako harriek nigar egiteko esan didate eta nire malkoak Deba hibaiari eskeintzeko; Konportako zuhaitz-hostoek belarrietan ospolak dituztela aitortu didate;

Konportako bidetxiorrak ez nau ezagutu,
Konportako haizeak eguzkia kendu dit,
Konportako urak eskuetatik ihes egin dit,
Konportako zuloek okertu egin naute,
Konportako etxeek buruan jo naute,
Konportako ikastolak far egin dit,
Konportako hurrek erdaraz egin didate,
Konportako konportak kanpora bota nau
eta konportako harriek nigar egiteko esan
didate eta

Konportako...

Konportako...

Konportako...

Konportako...

Konportako...

Konportako...

Maisu bat

Konportako mailak

AUBIXARA GOAZ

Ikastolako haur bat naiz. Baditut nire lagunak. Oso pozik nago lau egun hauetan jai dugulako eta pozago oraindik Aubixara goazelako.

Maleta prestatzen ari naiz: frakak, jertzea, pijama, izarak, oinetakoak, galtzerdiak, botak, etab...

Bi urtetan joan naiz udan egunak pasatzera eta badakit nola ibiltzen den Aubixan eta hango alderdi batzutan ere.

Lehengo urtean oso ongi ibili nintzen eta bi kilo gizendu ere bai. Joxepak homenaldi bat merezi du... beti sukaldean sartuta eta bazkari ederrak ipiniaz gainera.

Hango oheak oso komodoak dira eta burukoa oso biguna. Gauetan oso ederdi ibiltzen da debokjuergan. Merezi du, bai, Aubixara joateak.

Eguraldi ederra egingo balu askozik hobeto ibiliko ginateke. Uste dut Aubixan, lau egun hauetan, oso pozik eta oso ederki pasako dugula.

Myrian Iriondo

(7. maila)

NIRE GOGO ETA AMETS HANDI BAT

(Ikastola Elkarteak Loiolan antolaturiko lehen idazlan lehiaketan aurreneko saria irabazi zuen idazlana dugu hau)

- - - - -

Egun batetan amets handi bat egin nuen: etxe handi batetan bizi nintzen, txakur ttipi bat nedukan eta lorategi ikaragarritzko bat, lore polit, kolore edo margo askorekin.

Egunoro, goizetan, nere zakur Beltzeri janaria ematen nion, eta loreei ura botatzen nien, Honela nere etxea herriko politena eta zoriontsuena egin zen. Gau batetan, leihora irtenda, izarrak ikusten nengoela, izar batetik gauza bat irten zen, brillo handia zedukan, lehenengo ez nuen ikusi ondo, baina gero urreratzen zihola, katilu handi bat zela ikusi nuen, bertan gizon ttipi orlegi-orlegi bat zegoen eta azkar-azkar nere lorategira zetorren.

Ni, hura ikustean, korrika irten nintzen eta katilua gelditu zen tokira abiatu nintzen. Han zegoen katilua, baina gizon orlegiak alde egin zuen. Esnatu nuen Beltz eta biok gizon ttipia bilatzen hasi ginen. Han zegoen, gixajoa, arrosa handi baten gainean. Hartu nuen eskuetan eta etxera eramane nuen. Hankak muellezkoak zi-

tuen eta buruan bi antena luze. Sartu nuen pospolo kaja batetan eta musuzapi batekin tapatu.

Hurrengo goizean, zarata arraro bat entzun nuen eta esnatu egin nintzen. Pospolo kaja zabalik zegoen eta gizonttoa mahai gainean euli bat hiltzen. Antena luze haiekin gauza zuri bat botatzen zion, tximist bat bezalakoxea. Eulia pizkanaka-pizkanaka lotaratzen joan zen eta azkenean geldigeldi geratu zen.

Orduan gizonttoak hartu eta jan egin zuen. Bildurra eman zidan eta hanka egin nuen, baina \pm laister damutu nintzen. Etxetik zarata handiak ziren. Zer ote zen hura? Joan nintzen laisterka baina beranduegi. Etxe guztia mugitua zegoen: kajoink ak aterata mahaiean eta aulkiak hankazgora, jantziak, paperak eta beste lurretik zehar.

Orduan Beltz etorri zen korrika eta bidean bi loreontzi eta aulki ttipi bat bota zituen lurrean.

Hasi ginen berriz gizonttoa bilatzen eta klabelin gorri baten gainean bilatu genuen. Gizonak ikusi gintuen eta guregana etorri zen saltoka. Beltz zaunkaka hasi zen, baina gizonttoa nere bizkar gainera igo zen eta ile batetik tiraka hasi zen; apurtu eta jan egin zuen; gero, nik ez dakit nola, lurrazpian sartu zen eta gauerarte ez nuen ikusi.

Gauean nere ohera etorri zen; ni lo nengoen eta ez nintzen konturatu, baina Beltz beti begiak zabalik zegoen eta zaunkaka hasi zen. Esnatu nintzen eta han zegoen gizonttoa lo nere ondoan. Egun hortatik aurrera ez nuen eduki beldurrik eta oso lagun egin ginen.

Pasa ziren egunak, asteak, hilabeteak eta gizonttoari bere etxera joateko gogoia egin zitzaion. Pena handia hartu genuen Beltzek etanik, baina berak bere izarretara joan behar zuela esaten zuen eta azkenik sartu katiluan eta tximista baino azkarrago han joan zen.

Izarrerara ailegatu zenean katilua, berriz, nire lorategita etorri zen, baina orain goan hutsik. Gizonttoak bialdutako erregalia zen. Hartu genuen eta etxeko mahai gainean laga genuen... Gauean izarretara begira nengoela argia ikusi nuen. Zer ote zen? Leihotik sartzen zen eguzkiaren argia. Han zegoen nire ama ohe aurrean eta ni logure handiarekin ohean etzanda.

Jeiki nintzen eta ikastolarako bidean nire ametsetako gizonttoarekin pentsatu nuen.

Sekula ez zait ahaztuko amets hura, eta egunen batetan hartuko dut katilua eta prueba egingo dut izarretara joateko gizonttoa ikustera.

EUSKALDUNAK AMERIKETAN JESUKRISTO BAINO
700 URTE LEHENAGO

Andaluzak eta Afrikaren iparraldeko gizon batzuk Ameriketara Kolan baino mende batzuk lehenago iritsi ziren. Baina lehenengoak EUSKALDUNAK izan ziren. Nueva Zelanda-ko biologo batek, Harvard-ko irakasle bat, eta aintzin iskribuak ondo ezagutzen dituen maisu batek hori esan du.

Eta euskaldunak ez badira, Amerikarrek, behintzat, hizkuntza berdina zuten. Ez dago dudarik: Portugaleko iparraldeko probintzia bate-tik irten ziren euskaldunak. Orain 2700 urte di-rela herri txiki hau han zegoen.

Fell maisuak hiru aintzinako iskribu nagusi daudela esaten du. Lehenengoa eta zaharrena euskaldunena, Portugaleko Tras-os-maites-etik irten ziren. Fell'ek "lusitania" deitzen du. Bigarrena "púnico Ibérico" hizkuntza da, Andaluzian hitzegiten zena. Hirugarrena eta azkena Libiatik dator. Han aurkitu dituen hilarrietan euskal izenak aurkitu ditu: "arano", "erik"... "auez" hitza ere aurkitu du (hiru udatako neska ttiki bat) Fell'entzat "auez" izena gaurko "Inés" da. Aurkitutako aztarna denak museotan dagoz. Benetan euskaldunak dira Amerika aurkitu dutenak.

Xabier Bastida eta Ion Suárez

MISTERIOZKO EGUNA

Egun batez, lagun kuadrilla batzuek apustu bat egin zuten. Hau da: kuadrillako bildurtiena ez zela gauean kanposantura joaten. Berrari beldurra ematen zion eta ez zen joan.

Orduan balienteenari esan zioten: 2.000 pezata ematen dizkizugu kanposantura joan eta hilontzi batetan kutxillo hau sartzen baldin baduzu. Berak baietz esan zuen eta joan egin zen.

Bere lagunal atzetik joan ziren ikustera, ea esandakoa egingen zuen. Egin zuen esandakoa baina joan behar zuenean, ezin zuela ikusi zuen. Bere jertzea ere kutxilloz hilontzian inkatu zuen. Norbaitek heltzen zuela pentsatu zuen eta txilioka hasi zen. Lagunek ihes egin zuten sustoarekin.

Biharamunean lagunak berriro joan ziren baina hilda zegoela ikusi zuten hartu zuen sustoarekin. Apostu gehiago ez zuten egin.

Javier Artola

BILDURRA

Neguan gaude eta denok etxean. Familia bat afaltzen eta aitak esaten du:

- Non da Nekane?

- Dantza egitera joan da -esatem dio amak.

- Bale!

- Baina, Patxi, Nekane ez dit esan ze ordutan etorriko den.

- 3retarako ez bada agertzen neu joango naiz. Eta orain amaidazu kafea, Amaia.

Aita bildurrez dago baina didimulatu egiten du.

- Amaia ze ordu da?

- Ordubata

- Oraindik ez dira 3rak

Denbora aurrera zihoan eta

- Ze ordu da Amaia?

- 3rak

- Bueno, banoa

Aita etxetik irtetan da. Hotz handia egiten du. Kaletik dihoala zas! kutxillo bat sartzen diote eta ez du ezer ere esaten hildakoak. Hiltzai lea joan egiten da.

Alaba etxera dator eta aitarekin aurkitzen da: "Aita, aita!". Aitak ez du ezer egiten. Neka ne nigarrez hasten da.

Pelikulako zuzendaria azaltzen da: "8so ondo; 38.- goazen kafea hartzera! Iñaki Muguruza

U D A

Udan lorak hasita dagoz.

Gu mendira joatean lorak hartzen ditugu,
xoriak txiruli- txiruli,
beren kantekin joaten dira,
beren kabietara.

Gu ikustean, zergatik joaten dira?
zergatik ez dira gurekin gela
ditzen?

bildurra ahal dute?

Udari galdatu egingo diot.

Uda, ba ahal dakizu zergatik joaten diren xoriak?

Bai, negua ailegatzen dagoelako.

Oh! Zer gauza txar haientzat!

Ba, joan behar baduzu, agur!

Bai, agur.

Mirari

Igartua

ERREKAKO ARRANTZA

Arrantza arrainak edozein modutara harrapatzea da. Gehienbat, hibaitan behintzat, kañaberaz harrapatzen dira. Neretzat eskuz errazago harrapatzen dira, baina debekatua dago.

Euskal hibai eta erreketan orain amuarrainak, eskailuak eta barbo batzuk bakarrik gelditzen dira. Leku batzutan aingirak ere bai. Gehienik, eskailuak eta amuarrainak.

Eskailuak jatearren harrapatzen dituzte, ez denbora pasatzearren. Eskailuak txikiak izaten dira; normalki zazpiren bat zm. buztanetik bururaino. Eskailuak harrapatzeko garnatarik onena animalia baten burua usteltzen laga eta haren harrak dira.

Amuarrainak askoz handiagoak dira. Normak emezortziren bat zm. koak izaten dira. Amuarrainak askoz gutiago daude eta zailagoak dira harrapatzen. Amuarrainak ez dira egoten ur gelditan. Batzutan bai baina oso guttitan.

Kañaberan lotuta edo katigatuta karretean egoten da. Karreteari lotuta kristalina... Kristalina eskailuak harrapatzeko baldin bada: kortxua, amua eta beruna. Amuarrainentzat: berunak eta amua. Amuarrainak er zikiñez eta eguraldi txarrez harrapatzen dira. Eskailuak ur garbiaz eta eguzkiz.

Jesus Mari Maiztegui

Galdera: Nola hartuko zenuke jertsei bat hibaitik?

Erantzuna: Bustita.

Iñigo Etxaniz



Jesus Etxabe

ETORKIZUNA

Gaztetatik bakoitzaren etorkizuna jakiten zail xamarra izaten da, baina hala eta guztiz ere bakoitzak bere ideia edo pentsamenduak baditu.

Nik oraindik ez dakit zertarako balioko dudan baina nere amets nagusia euskal maisua izatea da. Hori ezin egin balitz aldizkariko korrespondentzia edo, bestela, elektronikako ikasketak egitea gustatuko litzaidake. Badakit hiru gai hau oso diferenteak direla, hau da, heuren artean zerikusirik ez dutela, baina ni gai hau zoratzen naute oraingoz behintzat.

Badakit karrera bat egiteko gauza askotan pentsatu behar dela, hau da, geroko bizitzan, familiako ekonomian, etab... Baina badakit baita ere ditua ez dela ezer ere; ez dela egin behar karrera bat diruagatik. Nik neronek ez dut dirua munduko bizitzaren erantzun bezala aurkitzen. Baina jende askok bai; dirua bizitza dela uste dute, baina lehen esan dugun bezala bakoitzak bere pentsakerak ditu eta hau ere beste batek kritika ditzazke.

Ion Suárez

FAISAL ERREGEREN HILKETA

Ez dakit ondo baina uste dut Faisal Erregeren hilketa maiatzaren 24-25 ean izan zela. Maiatzaren 25 ean herri guztia bildurtuta bere etxetan zegoen. Honela izan zen:

" Faisal Errege zegoen eta bere ezkerretan ministroa. Erregeri saldatzera bere iloba bere zen. Eta ohitura den bezala, matrail bakoitzean laztan bat eman zion. Baina laztanak amaitu baino lehen bere mangatik pistola bat atera zuen "silenciador" batekin. Bost edo sei tiro botatakoan bere ilobak pistola bota zuen. Ministroak zerbait arraroa sumatu zuen. Faisal Errege makurtzen hasi zen eta etzanda gelditu. "

Baina... zergatik bere ilobak pistola lurrera bota zuen? Ba, Arabian jendearen aurrean pertsonaren bat hiltzen baduzu pistolaz edo beste edozein armez, denen aurrean ejekutatua izango zarelako.

Non dago orain hiltzailea? Hori inork ere ez daki. Gauza hori oso sekretoan gordetik dago. Seguraski, ordea, laister ejekutatua izango da.

Faisal Erregeren hilketak bildurra eman die nazio askori, beren protektore bezala hartzen bait zuten gehienek. Orain bere tronoa bere anaia du.

GERNIKA

Gure lehen gizon ospetsuenetakoak Gernikan batzen ziren Euskalerriko gora-beherak konpontze ko. Zuhaitz baten azpian eseritzen ziren korro bat, eginaz. Orain ere badago zuhaitz hori Gernikan, jende asko joaten da ikustera.

Iparragirrek, igaro zen mendean, Gernikako arbolari abesti bat egin zion. Bere izena "Gernikako arbola" da.

Draingo mendean ere, azkenengo gerran, bonba batzuk bota zituzten. Gernika izan zen bonba horien prueba. Gero Picassok kuadro bat egin zuen Gernika izenekoa.

Orain herri baketsu bat da, udako herri bat.

Lourdes Peñalba

=====

Egun batez gizon bat berebilean zihoan eta baserritar bati esan zion:

-Eh! Baserritar ondratu hori! Noiz bukatzen da aldapada hau?

- Ez da aldapada. Atzeko bi gurpilak falta dituzu.

Joseba Echeverria


HILERRIAK

Hilerriak orain guk "kanposantak" deitzen ditugunak dira. Bertara sartzen dituzte gorpuak beren entierroa eginda gero, lurraren azpian edo hormetan. Hilerrietara noizean behin joaten da jendea errezatzera edo loreak jartzera.

Aintzinako euskaldunek hilarri bezala dolmen antzerakoak zituzten. Harriz eginak ziren.


Baina haiek ez zuten gu bezala pentsatzen. Hilda gero beste bizitza bat zegoela uste zuten eta horregatik gorpuak dolmenetan sartzen zituztenean ontzi bat jartzen zien aldamenen. Aberastasunak, janariak eta beste gauza asko sartzen zituzten ontzi hauetan.

Beste bizitzan sinisten ez zuten batzuk ere bazegozen. Hori zela eta, isilean joan eta aberastasun guztiak hartu eta heurentzat gordetzen zituzten. Faraoiek hartzen zituztela uste zuen jendeak




Agurtzabe Garcia

Zein



Nork harrapatu du karramartoa?



Nondik joan behar du arrainak?

- Juanito, nolako hanka motzak dituzun!!!
- Ez dio axolik, lurreraino iristen zaizkit.

Joseba Echeverria

AMAYAREN AMETSA

Amaya neska on bat zen baina bihurria. Beti bihurrikeriak egiten pasatzen zuen eguna. Ez zuen aitarik, bere amarekin eta bere ahizpa rekin bizi zen etxe txiki batetan.

Egun batez, Amayak amets izugarri bat eduki zuen eta bere ahizpa Lourdesi kontatzen hasi zen.

" Gizon bat etorri da eta oso abe ratsa. Amari, hemen egun batzutan egon zitekeen galdatu dio. Amak bai etz esan du eta hemen gelditu da. Lan asko egin zuen, baina gero ezer ez. Azkenean amak bialdu egin du. Baina gauean etorri eta gauza guzti ak eraman ditu ". Eta gero esnatu egin naiz.




Joseba Echeverria

Ma Jesus Urain

BALEAK

Baleak dira aintzinako gizonen itsas-
munstroak. Gizon haiek itsas munstro batzuren
historiak entzuten zituzten eta entzuten zuten
bezala marraztu egiten zituzten.



Baina urteak pasa eta urteak etorri,
gauzak ez dira ondo gogoratzen eta beste ma-
rrazki bat egiterakoan izugarritzko munstroak
marrazten zituzten. Eta horrela guregana aile-
gatzerakoan gezurrezkoak dirudite.

Baina ez, gizon batek historia bat kon-
tatzen duenean historia hori gertatu da. Eta
hain neurri handiko animalia bat bakarra dago:
balea.

Yon Imanol Rementeria

Irrisolasak

Neska argi bakarra

Mutil zaharrak: - Sinets nazak, Txomin! Neska
guztiak tontiak dituk. Neure bizitza osoan bat
bakarrik topatu ziat argia dena.

Txominek: - Eta zergatik ez hintzen harekin ez
kondu, ba?

Besteak: - Ez pentsa, txo! Eskatu egin nioan
horixe ere, baina ezetz esan zidaan.

Oso gaizki egon behar!

Paulo bere adiskide Ales bisitatzerara doa espi-
talera.

- Hara! Hemen ez haiz kexatuko. Hemengo
erizaina, guttienez, oso neska politta duk.

- Bai ote? Ba ahal dakik, ez naizela kontu
ratu horretaz ere?

- Ai ene! Ez nian uste horren gaizki hen-
gokeenik, mutil!

Gerrako kontua

Bizarginak bezeroari: -Aizu, inoiz moztu ote
dizut lehenago bizarra, jauna?

- Ez! Trankil! Aurpegiko orbainok gerra
denborako zaurien ondorioak dira.

Hogei milioi galduak

Nekane oso aberatsa da, eta Mikel, berriz, ezin pobreago. Neskak mutila estimatu, bai, egiten du, baina ez besterik. Mikelek, bestetik, badaki hori; eta gau batez, goxo goxo jarririk honela dio:

- Hara, Nekane! Hi oso aberatsa haiz, ez da hala?
- Bai, Mikel. Gutierrez hogei milioi zitiat.
- Bai? Eta... nirekin ezkondu nahi dun?
- Oi, Mikel! Ezin zezakeat, benetan. Estimatu egiten haut, baina ezkontzeko beste...
- Ez ardurarik ukan, Nekane. Nik ba nirekinan, ezetz erantzunen hidala.
- Eta orduan zergatik galdatu didak, ba?
- A! Jakin nahi ninan, zer sentitzen duen gizon batek, hogei milioi galtzen dituenean.

Gogoetak

- Agure baten ilusioa, ilusiorik baduela jakitea.
- Politika egiten jakiteko, beharrezko dira bi gauza; bata, hitz egiten badizute, ez entzutea; eta bestea, isilean badaude, orduan bai, entzun deza-kezu.
- Zakur bat ohartu zenean noren lagun hoberena izan behar zuen, bera otso bihurtu zen.
- Gaur egun ez da gizona galtzak daramatzin guztia



EUSKAL HERRIKO MUTIL GAZTEA

Egun batez bazen Euskalerrri guztiari jira eman nahi zion mutilbat, baina ezin zuen dirurik ez zuelako.

Egun batetan mutil horrek mila pezeta aurkitu zituen eta etxera joan zen pozik.

Bere aita gaixorik zegoen eta ez zuen dirurik botikak erosteko, baina mutil hau ez zen tontoa. 50 pezetako errifa bat erosi zuen eta saria tokatu zitzaion. Orduan etxera joan zen pozik be-deratzi mila pezetarekin. Aitari botikak erosi zigkion eta sobratzen zen dituz Euskalerrriko jira egin zuen.

Etxerakoan bere aita hilda zegoen eta muti-koak hori ikusi zuenean bera ere sustoaz hil zen.

Yon Gabilando

LAPURDI - BAXENABARRE - ZUBEROA

Lapurdi, Baxenabarre eta Zuberoa Ipar Euskal Herrian dagoz. Gu baino garbiago dira. Ez dute in-
dustriarik. Gehiena turismoaz bizi da.

Baionaren ondoan, Ziburun, Ravel oso gizon famatu bat jaio zen. Orain bizi izango balitz 100 urte inguru izango lituzke.

Lapurdi, Baxenabarre eta Zuberoan ez da kite gaztelaniaz hitzegiten, euskara eta fran-
tsesa baizik. Hemengo euskaran "h" ere esaten
edo ahozkatzen dute. Maulen, Zuberoaren hirian,
hor badagoz industriak baina gutti. Mugan, Piri-
neo alderdian, esku-lanak ere asko egiten dituz
te: egurrezko gauzak, harrizkoak, etab...

Jose Ma Kortaberria

IPAR EUSKAL HERRIA

Oso penagarri da euskaldunak aparte bi-
zitzea. Euskaldunak elkartuta bizitzea nahiko
nuke nik. Gu Espainian gaude eta beste euskal-
dunak Frantziaren hegoaldean.

Gu heurak baino zikinago gara. Heurak
arrantzatic bizi dira eta turismo asko dago.
Gu heurak baino aberatsago gara, han industria
rik ez baitago.

Euskara egiten dute eta horrekin asko
pozten naiz. Hona etortzea nahi lukete baina
muga ezin daiteke pasa. Frantzesez ere egiten
da eta merkatu asko dago eta gaztelaniaz daki-
tenak ere badagoz merkatuetan turistekin konpon-
tzeko.

Hego Euskal Herrira jende askok emi-
gratzen du. Zergatik ez dute hori egiten Fran-

tziako euskaldunek?. Oso penagarri da eta hori
da onena euskaldun denak elkartuta bizitzeko.

Imanol Lاراñaaga

Abestia

Amak ezkondu ninduen hamabost urtekin,
senarrak bazituen, laurogei berakin.

Oi, ai, neskatilla gazte
agure zaharrakin!

Ama, zertarako dut nik agure zahar hori?
Hartuta leihotikan jaurti behar dut nik.
Oi, ai, neure leihotikan
jaurti behar dut nik.

Neska, hago isilikan, aberatsa dun hori;
epe z igaro hitzan urte bat edo bi:
hori hilez geroztikan
biziko haiz ongi.

Deabruak daramala oilar urtetsua
ha(hura) baino nahiago et(nahiago dut) nik
nere aukerakoa.

Oi, ai! bgei bat urteko
gazte lorekoa.